

EUSKALTZAIN YAUN AGURGARIEN AITZINEAN

Amayurko Erótor Kruz Goyenetzek ematen duen iritxi edo iduripena

Eskualdun guzi guziek biotzetik maitatu bear dugun gure itzkuntza zagararen onerako, duela zenbait urte, gutartean sortua izan zen Euskaltzaindiak; bere eginpide zabal eta nekosen indaiez, lanpetua badago ere; gogorapen onbat izan du. Eskualdunen artean euskal-era bat baño geiago badirela ikusita, untarik eldu diren erabe edo makuren lekuarazteko non zer egin ote daiteken galdatzea.

Bida direla, uste dut, Euskaltzaindiak gai untan egiten dazkun galde-erak.

1.º Bat: Euskalki guzietarik batartzea egoki ote den.

2.º Bigarena: Egoki balin bada, autetu bear de ori zein den. Edo Bizkaiera, edo Gipuzkoera, ala Napartar, Lapurtar edo Suberofara.

Nere iduripena, deusgutikoa bada ere, al bezain lanoki eta garbi emanen dut.

Guzien gogorako gauza litzake, eskualdun guzien artean; odolez bat garen bezalaxe; eskualera bat bakara izatea. Eta; nork asma ortarik etoriko litzaizkigun ondorio-onak. Untan ezdakust neor eztabada zerbait izateko araiskurik. Bañan eran bearko baitugu, naski, aspaldiko itz neurtzaleak ziona: *Video meliora, proboque, deteriora sequor: Dakus obeam*

kafik agotan ibiltzen dituztenak; eta edertasun eta aberastasun ok guzior galduko lirazke, bere eño edo sustraya den eskualera zokorat igortzean; zuaitz bat ondotik aizkora-lariak mozten duenean, aren besan-gat eta adañak luñera erortzen diren bezalaxe.

Ora zergatik; nere iduripena da, Euskalki guzie-tarik bat artzea, oray bein ezta egoki den gauza. Eran dut: oray bein; Gero zer egoki izain den geroak era-kutsiko du. Eskuararen batasun ori, ez indarka, bai-zik bere baitatik etofi bear duen gauza da. Guzion gogorakoa. On aundiak emain luzken gertaera; eta denek, bakotxak egiten al duena eginez, uraska uras-ka bilatu bear duguna.

Eran ditut eran gogo nituenak.

Elizondon Ilbeltzaren 27'an 1921'fen urtean.
